

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

EKONOMIA SUSTAPENAREN, ENPLEGUAREN, MERKATARITZAREN ETA TURISMOAREN SAILA

Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariak 2020ko ekainaren 22an emandako ebazpena, zeinaren bidez izendatzen baitira “2020an Vitoria-Gasteizen ikus-entzunezko proiektuak —fikzioa, animazioa, dokumentalak nahiz telesailak— garatu eta ekoizteko eta gidoiak idazteko laguntzak” deialdiko balioespen-batzordeko kideak

Aintzat hartu da Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko martxoaren 27an hartutako erabakia, non onetsi baitziren Gasteizen, 2020an, ikus-entzunezko proiektuak garatu eta ekoizteko eta gidoiak idazteko laguntzetarako deialdia eta hori arautzeko oinarriak.

Zortzigarren oinarriaren ildotik, Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailari dagokio oinarri hauetan aurreikusten diren laguntzak kudeatzea. Batzorde tekniko bat eratuko da horretarako, honako hauek osatua, Gizon eta Emakumeen berdintasunari buruzko 4/2005 Legearen 7.3 artikuluan xedatutakoari jarraituz:

Lehendakaritza: - Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko Enpresen Zerbitzuko burua edo hark ordezkari izendatzen duena.

Epaimahaikideak: deialdiak hartzen dituen alorretako hiru aditu profesional, Vitoria-Gasteizko Udalak izendatuak.

Idazkaria: Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko teknikari bat, ahotsa bai baina botorik gabe.

Enpresen Zerbitzuko buruak 2020ko ekainaren 18an egindako proposamen teknikoa ikusi da. Horren ildotik, hauxe

Ebatzi dut

Lehena. Balioespen-batzordeko kideak izendatzea eta batzorde horren osaera argitaratzea: Hauek dira balioespen-batzordeko kideak:

Lehendakaria: Juncal Ibeas Larrañaga; Udalaren Enpresa Zerbitzuko burua.

1. epaimahaikidea: Maider Olaeaga, zuzendari eta gidoilaria.
2. epaimahaikidea: Miguel Gómez Tejedor; zinemagile eta ikus-entzunezkoen ekoizlea.
3. epaimahaikidea: Arantza Ibarar Basañez; gidoilaria

Idazkaria: Ana Ruiz Gallardo; Enpresak Sustatzeko udal zerbitzuko teknikaria.

Bigarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratzeko agintzea, denek izan dezaten horren berri.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko ekainaren 22an

Administrazio Zerbitzuko burua
LUCIO CRUCELEGUI Y JÁUREGUI